

# POPULISMOAZ

## SUBIRANOTASUN GLOBALA ETA EUSKAL INDEPENDENTZIA

Joseba Gabilondo  
Txalaparta, 289 or.  
Tafalla, 2017


### 1. Sarrera

Teoria psikoanalitikoaren eskutik inkontziente politikoaren murgilketa sakona bezain bortitza da Gabilondok bere azken obran eskuetara dakarkiguna. Egiten duen ibilbidearen eta proposamenaren berritasunak, freskotasunak, gardentasunak, harrituko zaituzte irakurle lagun. Edozelan, bere pentsamenduaren konplexutasun eta ñabardura-gaitasunak, errealitate soziala aztertzeko erakusten duen trebezia eta distirak, harrapa zaitzakete eta irentsi bere obran. Zalantzarik gabe, Gabilondoren luman ageri da egungo euskal saiakeragintzaren ekarpen erakargarri eta mardulenetakoa. Erakargarria, aurkezten duen nobedadean eta mardula pentsamendu konplexu bezain oparoan. Bere obraren gaurkotasunak bihurtzen dute Gabilondo honezkero saiakeragintzaren pentsalari eraberritzailea.

Psikoanaliaren jakintzaren arabera, arrazoimen kontzientziaduna ameskerian eta ilusioan oinarritzen da hein handi batean, eta benetan, errealitate gordinaren jabetza gureganatzera iristen garenean, inkontzientearen indarra nola nagusitzen den ohartzen hasten gara. Gizarte-harremanaren botere-jokoaren abiapuntutik, politikagintzaren ortzadarrean nagusitzen den alderdi irrazionalaren nagusigoa agerira ekartzeko ahalegin bete egin du egileak, eta deskribapen findu bezain ñabarretan azaldu: hain zuzen, inkontziente politiko berri baten atarian kokatu du euskal politikagintzaren une erabakigarria. Inkontziente politiko berri bateranzko jabetza bidean, egungo egoeratik haratago doazen proposamen berriak eraiki bitartean gainera.

Lehenik, Galfarsororen hitzaurrea dago. Galfarsorok, euskal politikagintzaren zenbait sintomaz jabetzeak abantailak dituela ohartarazten digu. Abantailak gure inkontziente politikoarekin hobeto bizitzen ikasteko. Izan ere, diren patologia politikoen eta desira kolektiboen paradoxa eta hutsuneekin aurrez aurre jartzeak balio behar liguke bizitza onaren koordenatu berriak hobeto ulertzeko. Hasteko, begien bistan egonagatik ere, ikusi nahi ez den hura ekartzeko ahalegin intelektual irmoa dago, «itsutasuna» hitzetara ekartzekoa, izendatze-ariketa oparo bezain finduan. Hein handienez, jabetza berri horietatik abiatu beharko baita eraldaketa politikoaren bide berria haren iritiz. Azterketa sakon horretatik, euskal politikagintzaren zenbait sintoma onartu eta agerian uztea bihurtzen da saiakera honen jomuga. Oraindik orain, indarrean dagoen estatu-nazio klasiko-independentearen atzean dagoen *fantasia politikoa* agerira ekarri artean, hots: terminologia psikoanalitikoan,

abertzaletasunaren fantasia politikoa zeharkatzen egin du egileak ahalegin, euskal inkontziente politikoan murgil eginda. Analisia harago eramanda baina, euskal independentismoa hobeto jabetzeko, globalizazio neoliberalak markatzen dituen koordinatuak eta baldintzak zein funtsezkoak bihurtzen diren egungo botere-jokoan ñabarduraz deskribatzen du jabetza berri baterako bidean. Hauxe da saiakeraren tesi nagusia: euskal abertzaletasunak globalizaziorako erakusten duen itsutasuna kaltegarria zaio bere helburuak lortzeko bidean eta «itsutasun» hori berea egin eta gainditzen ikasi beharko luke hemendik aurrera. Gabilondoren iritziz, itsutasun hori hain da larria ezen, kontuan hartzen ez bada, etorkizuneko edozein ekimen edo egitasmo politiko porrotera eraman lezake, hots: independentzia-egitasmoa bera barne. Saiakera honek azpimarratu egiten du euskal abertzaletasunaren ortzadarrak ez duela ulertu bere abertzaletasunaren formulazioa, egun, globalizaziotik abiatuz pentsatu beharra dagoela. Haatik, egungo populismoak eskatzen duena da alderdi politikoek politikan duten zentraltasuna birpentsatzea, herri-mugimenduekin lotu eta politika heterogeneo eta zabalago batean txertatzeko.



1. irudia. *POPULISMOAZ. Subiranotasun globala eta euskal independentzia*, argitalpenaren azala.

## 1. Populismoa

Gabilondok azaltzen du bizi dugun espektakuluaren gizarteak metaketa elitista handitzen duela, hots: kapitala elitearen eskuetara geroz eta mugatuago dago eta ordezkartzeko demokrazia hutsalkeria bihurtzen du. Klase jakin batek du bakarrik hedabideak erabiltzeko eta bere interesak adierazteko boterea. Ondorioz ordezkartza politikoa ez da *demosaren* edo herriaren adierazle, elitearena baizik. Demokratikoa baino gehiago, garai *postdemokratikoa* da egungoa. Espektakulua eta ordezkartza politikoa bat datoz herrien kaltetan eta elitearen mesedetan. Hara hor, garai *postpolitikoa*: ordena politikoa teknokratikoki lortutako kontsentsuan oinarritzen denez, ez-politika bat hobesten duen kontsentsua da. Garai postpolitikoan teknikaren orjakintasunak aurrea hartzen die herritarren uste politikoei eta jardun politikoaren ordezkari adituen iritzi zientifiko kuestionaezinak bihurtzen dira nagusi. Postpolitikaren

garaietan salbuespen-estatuaren egoera orokortzen da terrorismo eta etorkinen mehatxuekin, funtsean askatasun demokratikoak eta giza eskubideak eten bitartean. Giza esklabismo berria edo eraso matxistak ere salbuespen-estatu horren alderdi bat gehiago baino ez dira. Arrazoibide honetara iritsita defendatuko du Gabilondok politika postdemokratikoak hartu duen itxura *populismoa* dela. Populismo berri bat, zeina globalizazioak eta politika neoliberalak sorrarazten duten eta klase ertainen desagertzerari mesede egiten dion. Eta egoera populista global horri buruz hitz egiterakoan bi joera bereizi ditu Gabilondok: populismo nazionalista eta globala.

## 2. Eskuineko populismoaren adierazle nagusia

Globalizazioaren areriotasuna irudikatzean hiru etsai ikusten dituela nazioak azaldu du Gabilondok: terroristak, etorkinak eta elite globalak. Populismo neonazionalista bada, kanpoko terrorismoarekiko eta etorkinekiko eratzten da, bere eliteak subjektu pribeligiatu bihurtzen dira. Beraiek dira komunikabideetan agerraldi nabarmenenak eta ugarienak dituztenak eta ordezkari politikoan gehien parte hartzen dutenak.

Populismo neonazionalistan liderrek eta eliteek oso leku berezia hartzen dute, *adierazle nagusia* bihurtzen dira psikoanalisi lacandarraren arabera. Ondorioz politika era fantastiko batean eratzten dute: bat-batean lider politiko bat (jostailu bat edo janzkera bat bezala, kasu) modan jartzen da eta denek onartzen dute haren garrantzia: egitura irrazional bati, fantasia bati erantzuten dio halako fenomenoak. Lacanen arabera, fantasiak desiraren bidez eratzten dira. Desiran norberak ez duena negoziatzen da, hau da, *gabezia*. Subjektuek beren gabeziarekiko erlazioa ez dute zuzenean eratzten beste subjektu batzuen bidez baizik: «dakiela suposatzen duten subjektu» bihurtzen dira. Lacanek «Bestea» deitzen dio subjektu mota horri B larriz idatzita. Gabezia eratzten duen desira bada, beste subjektu batzuek dutenaren arabera eratzten da, eta horrek ematen dio fantasiari bere egitura gaindiezina, hots: beti uste izaten da beste norbaitek guk baino gehiago dakiela eta gozaten duela gure desiraren objektua. Hala, *adierazle nagusia*, beste guztien desira eratzten duen adierazle edo subjektua da: guk ez dugula baina besteek badutela suposatzea ahalbidetzen duen adierazlea. Adierazle nagusiak *gozamen surplus* bat hartzen du, dakiela suposatzen delako. Pentsarazten digu gure desiraren objektua guk baino gehiago gozaten duela. Surplus hori da fantasiari indarra ematen diona, subjektu gisa egituratzean, hots: desira beti *adierazle nagusiaren* bidez eratzten da, gozaten dakiela suposatzen delako. Hala, Gabilondok azaldu du, Donald Trumpen kasua ulergarriagoa egiten dela politikan, gizon aberats hori gizarte amerikarraren gehiengo zuri batek desiratzen eta ez daukan politika baten adierazle nagusi bihurtu baita. Haren diskurtsoa, alde batetik, nostalgiko-inperialista eta antiglobala da eta bestetik gorrotozkoa eta antidiferentziala (diferentzia etniko sozialen aurkakoa). Trumpen egituratzean duen fantasia politikoan amerikar gehienek ez dutenaren, bere gabeziaren adierazle nagusi bihurtu da. Eta gabezia hori nola gozatu bide dakien subjektu bihurtu da. Amerikarrek baino gehiago gozaten duen subjektu bihurtu da Trump, adierazle nagusiaren *surplusaren* jabe. Hortik eratoritzen da harekiko identifikazioa, hots: Trump bihurtu da iparramerikarren desira politikoa eratzten duen *adierazle nagusia*.

### 3. Ezkerreko populismoa sintoma bezala

Psikoanalisi lacandarraren perspektibatik ikusita, politika ezkorren azken ezaugarri bat *sintomaren gozamina* da. Lacanen arabera, histeria da ordena sinbolikoari, legeari eta adierazle nagusiari aurre egiten dioen erresistentziako diskurtsoa. Adierazle nagusiari edo «dakiela suposatzen den subjektuari» eskatzen dio erantzun bat bere gaixotasunari edo ezinegonari aurre egiteko, baina era berean ihes egiten dio adierazle nagusiaren erantzunari. Izan ere, helburua ez da erantzun bat lortzea, baizik eta adierazle nagusiaren botere politikoa auzitan jartzea. Egitura histerikoak boterean dagoen adierazle nagusiaren eskumenetik harantzago kokatzen du bere burua. Teoria lacandarra ekarri du Gabilondok egungo populismo aurrerakoien dinamika ezkor orokorrera, eta hortik uler dezakegu zergatik ez duen adierazle nagusirik politika negatibo populistak edota zergatik eraten duen bere fantasia politikoa adierazle nagusi ahul baten bidez. Adierazle nagusiaren aurka eta hark eraten duen fantasia politikoaen aurka, subjektu histerikoak diskurtso ezkor bat zabaltzen du. Sintomatikoa bihurtzen da gaixotasun politikoa adierazten duen adierazle egiazkoena bihurturik. Histerikoaren gozamina ahalbidetzen duen adierazle edo «aitzakia» horrek izen bat hartzen du psikoanalisian: *sintoma*. Sintoma bihurtzen da ezkerreko populismo negatiboaren abiapuntu haren iritziz. Sintoma(k) gaixotasun politiko zabalago eta sendaezin baten adierazpide bihurtzen dira, histeriaren politikan, ordena politikoa era ezkor eta gozagarri batean auzitan jartzea eskatzen dutenak. Sintoma politikoak eremu politiko osoa auzitan jartzen du eta hain zuzen horregatik sintoma(k) ugaltu egin daitezke ordena logiko edo arrazionalik gabe, eta elkar kutsatu dezakete elkarren bidez goza daitekeen politika bat areagotuz. Sintoma(k) errealtate sakonago bati erantzuten dionez, koherentzia bat ikusten du Lacanek sintomaren eta inkontzientearen artean. Inkontzienteak subjektua zehazten duen neurrian, sintoma bihurtzen da errealtatearen gatazka inkontziente politikoez nola itxuratzen gaituzten ulertzeko eta gozatzeko bide bakarra. Sintomak erakusten du eremu politikoa itxura arrazionaliki ulertezina. Haatik, errealtate politikoa (ordena sinbolikoa) ulertzeko diskurtsoa adierazle nagusi neoliberalak egituratzen eta kontrolatzen duten neurrian, erantzun politikorik egiatiena eta gozagarriena bihurtzen da sintoma, zehatzago, *sintoma populistak*, anizkunak eta agorrezinak. Horren arabera edozein adierazle politikarako abiapuntu bihurtu daiteke egilearen arazoibideari jarraiki.

### 4. Subiranotasun destituitzailea

Gabilondok azaltzen du euskal sintoma populistak neoliberalismoak eta heteropatriarkatuak itxuratu duten errealtate inkontziente eta gatazkatsu baten adierazpide direla. Egun indarrean dagoen egiazko subiranotasun bakarra kapitalismo neoliberalak eta eliteko klaseak globalki ezarri dutena da. Kapitalismo neoliberalak subiranotasun berri bat ezarri du, hots: salbuespen-estatu globala. Edozein herritar bihurtzen baita terrorista susmagarri salbuespen-estatu globalean. Kudeatze neoliberal teknokrata bihurtzen da salbuespen-estatuaren subiranotasunaren jardun globala eta subiranotasun neoliberalari aurre egitea edozein burujabetza berreskuratzeko abiapuntu bihurtzen da. Hortaz, populismo

sintomatiko eta negatiboaren garaian, herri-subiranotasuna ezin da konstituitzailea izan, baizik eta *destituitzailea*. Hori da Gabilondoren ondorioa. Politika destituitzaile baten helburua subiranotasun negatiboa dela formulatzen bada, politika berri bati zabal lekiokete atea, estatuaren subiranotasuna berreraikitzeari uko egingo dion ekimen bati heltzeko, hau da, populismo negatiboa: estatuaren legeak ez dira berreraikitzen subiranotasuna herriari itzultzeko baina. Eta subjektu heterogeneoen eskaera destituitzailea beren buruaren burujabetasuna da, hau da, subiranotasun etnikoa, generozkoa, ekonomikoa, soziala, ekologikoa eta abar. Hala, ordena neoliberal globalaren adierazle nagusiak ukatzen dira eta subjektu heterogeneoaren burujabetasun-eskaera era negatibo, anizkun eta kutsakorrean zabalduko da, ordena neoliberalari ezetz esanez: *destituituz*. Ezetz esanez era histerikoan populismo aurrerakoia ordena neoliberal destituitzen du. Beraz, ezin da subiranotasuna era klasikoan ulertu hemendik aurrera. Subiranotasun destituitzaile populista askotarikoa da baina. Eta borroka-subjektu anitzak biltzen ditu, haatik destituitzioaren politikak elkarrekikoa izan beharko du, sintomen *gozamen politiko* kutsakorrean zabalduz.

## 5. Euskal abertzaletasunaren ostadarraren itsutasun globala

Abertzaletasunaren gabezia, funtsean, irrazionala dela defendatuko du Gabilondok, irizpide arrazionaleri bainoago fantasia politiko berezi batzuei erantzuten dien neurrian: EAJrena gabezia psikotikoa izendatu du, Elkarrekin Podemosena neurotikoa eta EH Bildurena fetitxista, hurrenez hurren.

EAJren ideologia kudeatzailearen atzean Espainiako Estatu da EAJren benetako zeruertz inkontzientea, bere fantasia politikoari eusten diona: EAJren jomuga politikoa Espainiako Estatuan amaitzen da. EAJren globalizazioarekiko *ukazioa* zertan den ikusteko egitura psikotikoa erabili du Gabilondok. EAJren joera neoliberal gero eta hazkorragoa jardun publikoen pribatizatzean eta merkatu kapitalistaren hedatzean laburbiltzen da. Bi aukera kontrajarri ikusten dizkio EAJri: globalizazioaren lege eta eskakizun ekonomiko politikoak errefusatu eta salbuespenezko kudeaketa paradisutarrari heltzen jarraitu ala lege neoliberal onartu eta kudeatze paregabeari uko egin. Baina ezin dute biek batera aurrera egin, beraz hor hasten da «zartatze» edo psikosi jeltzale globala Gabilondok azaldu duenez. Jokabide psikotiko irrazional horren izena *errefusatzea* da. Arazoa badagoela onartzen du, baina halakorik ez balego bezala jokatzeko errealitatea ukatuz, EAJren kasuan, *ordena globala* eta *lege neoliberal*. Beraz EAJren fantasia politikoa, zeinak globalizazioaren ordena eta lege neoliberal ukatzen dituen, errefusatzean oinarritzen da, eta psikotikoa da Gabilondok azaldu duenaren arabera.

EH Bilduri dagokionez, sozialismoa eta independentzia fetitxe ideologiko gisa erabiltzen dituela argudiatuko du Gabilondok, talde txiki baten praktika oso gozagarri baina mugatua harrapaturik. EH Bilduk fantasia politiko irrazional honetan sinesten du, hots: Espainiako Estatutik bananduko litzatekeen Euskal Estatu burujabe baten barneko ekimen demokratikoak dena aldatuko lukeela. Baina Euskal Estatu burujabe sozialista feminista batek Troikari eta Alemaniari zer erantzungo liekeen ez du aztertu haren iritziz eta hor amaitzen da Euskal Estatu euskaldunaren fantasia politikoa. Gabilondoren ustez, egun, subiranotasuna, Troikatik eta Alemaniatic

pasatzen dela jakin arren, ezker independentistak subiranotasun-gabezia era *fetixista* batean konpondu du, sozialismoa Troikaren eta neoliberalismoaren aurka aldarrikatuz. Fantasia politikoa logika honela laburtzen du: ez dakigu egun zer den sozialismoa, baina halere sozialismoa da gure arazoaren erantzuna. Ezker independentistak sozialismoa erabiltzen du fetitxe bezala, ordena globalak ezarritako lege neoliberal kontrastubiranista eta kastratzailea desonartzeko. Fetitxearen bidez errealitatea eta haren legea (neoliberalismoa) onartu eta desonartu egin ditzake aldi berean.

Azkenik Elkarrekin Podemosen neurosia aztertzen du Gabilondok. Neurotikoak lege-ordena onartu bai, baina era berean norberaren desira eta fantasia politikoei eusteko, lege-ordena hori *ukatu* eta *erreprimitzea* da bere estrategia. Azkenik, Elkarrekin Podemosek autodeterminazioa eta erabakitze aukera onartu du, baina bi kontraesan handiren gainean eratu du aukera Gabilondok azaldu duenez: nazionalismo espainiar hegemonikoa eta Troika-alemaniarren neoliberalismo inperialista. Bere desira politikoa aurrera eramateko, instantzia horien legea edo ordena ukatzen edo erreprimitzen saiatzen da. Podemostarrek lege espainiar-nazionalista eta europar-neoliberalak onartzen dute, baina botere horien presentzia ukatuz eta erreprimitez eraten dituzte beren desira eta fantasia politikoz guztiak. Bere joera neurotikoa indartzen jarraituko du Euskal Herrian nazionalismo espainiarraren lege hegemonikoa onartuz baina era berean erreprimitzen saiatuz, bere euskal desirak eta erabakitzearen aldekoak adierazi ahal izateko.

## 6. Ondorioa: populismo global destituitzaile baterantz

Gabilondoren aburuz euskal politika sintomatiko eta destituitzaile batek bi ondorio zuzen ditu: Europatik ihes egin behar duela da lehena eta Espainiak ez duela gerorik estatu gisa azpimarratzea bigarrena. Baina hori guztia bideratzeko egin beharko da, ez independentziaren izenean, baizik eta gizarte-subiranotasuna areagotuko duen pauso sintomatiko eta destituitzaile beharrezko bat den heinean. Euskaldunok ondare europar ilustratu demokratikotik kanpo geratu garela beti azaltzen du Gabilondok eta testuinguru horretan etnizismo euskalduna erabat politikoki bihurtzen da, populismo aurrerakoiak eskatzen duen logika politikoki historikoan, sintoma gozagarri eta kutsakor bihurtu litekeena. Egilearen aburuz arazoa da nola bilakarazi euskal sintoma etniko kutsakor, beste sintomekin (feminismoa, klase-borroka, euskara...) batera. Edo bestela esateko, nola ez bihurtu independentzia-eskaera euskal *adierazle nagusia*, independentziaren fantasia politikoki beste subjektu ororen gozamaña menperatu ez dezan. Izan ere, euskal alderdi abertzaleek hautatu duten proposamen nazionalista klasikoa euskal adierazle nagusi etnikoa izan da luzaroan. Beraz, Gabilondoren aburuz Europar Batasuna desegin behar da era negatibo destituitzaile eta sintomatiko batean, subiranotasunaren bidean. Euskal Herriak Europan desegitearen sintoma kutsakor bihurtu behar du. Haren aburuz, Euskal Herriak independentzia lortzekotan, EBtik atera beharko luke, Europaren apurketaren sintoma bihurtzeko eta euskal historia ez-eurozentriko destituitzaile sintomatiko batekin birkonektatzeko. Jokaera sintomatiko destituitzaile batek Europan sartzeko eta modernitatea besarkatzeko desira inposatuarekin apurtu behar luke. Euskal Herri subirano eta destituitzaile batek hamaika sintoma populista

hedarazi beharko lituzke era kutsakor batean: sintomen politika gozagarria, zor globalarekiko subiranotasun ekonomikoa... eta promesa horiek subiranotasun global destituitzaile baten ondorio gisa aurkeztu: sintomatika kutsakor eta gozagarri bilakarazi. Euskal independentzia subirano destituitzailean jarri du Gabilondok jomuga oraindik irabazteko dagoen desira baten bidea.

*Jexux Larrañaga Arriola*

